

EROSKI-K FRANKIZIA ERAKO SUPERMERKATU BAT IREKI DU IRUÑEAN

- Elikagai freskoek leku berezia dute saltokian, batez ere sasoiko eta tokian tokiko frutak eta berdurek.
- Saltokian hiru langile ariko dira
- EROSKI 30 frankizia inauguratu ditu 2020an, eta horretarako 2,9 milioi euro inbertitu ditu; hala, 156 lanpostu sorrarazi ditu
- Kooperatibak eusten dio CEAJerekin duen lankidetzaz hitzarmenari, eta beste hitzarmen bat egin du ATArekin, enpresaburu gazteen ekintzailatza lagundu eta sustatzeko

Iruñea, 2020ko uztailaren 10a.- [EROSKI](#)k frankizia erako beste supermerkatu bat inauguratu du Aliproxeekin Egulbati Jaurerriaren kaleko 8.ean, Iruñean. Hiru langile ditu zentroak.

Supermerkatuak 2.500 produktu baino gehiago eskainiko ditu, ekoizle liderren markakoak, marka propioak eta tokiko ekoizleak, eta 70 metro koadro ditu. Horretaz gainera, elikagai freskoen eskaintza zabala edukiko du; bereziki, sasoiak sasoiko tokiko frutak eta barazkiak, eta erreferentzia osasungarriek garrantzia hartuko dute, produktu ekologikoen sorta bat izango baita.

"Frankizia erako formula bat da Aliprox, janari denda tradizionalen modernizazioa bilatzen duena. Hurbiltasuna eskaintzen duten saltokiak dira, eta aldi berean, EROSKIren merkatu politikarekin funtzionatzen dute. Kontsumitzaileari janari zerbitzu osatua eskaintzen diote fabrikatzailearen markako eta marka propioko produktuekin, eta lidergoa dute freskoetan", esan du Enrique Martinezek, EROSKIren Frankizia Saileko zuzendariak.

Hilero-hilero eskaintzak eta sustapenak izango dira, kontsumitzaileek errazago aurreztu dezaten, eta, gainera, baita Travel Club programaren abantaila guztiak ere.

30 frankizia inauguratu ditu 2020ko lehen sei hilekoan

EROSKI 30 frankizia inauguratu ditu 2020ko lehen sei hiletan. Guztira, 2,9 milioi euro inbertitu ditu, eta 156 lanpostu sorrarazi. EROSKI aurreko urteetako irekieren erritmoari eusten dio; hala, sei urte honetan, 300 inaugurazio baino gehiago egin ditu, eta gaur egun, frankizia erako 500 supermerkatu baino gehiago ditu. Guzak horrela, jarraitzen du frankizien sarea hedatzen, fokua lurralde hauetan ipinia duelarik datozen urteetarako: Andaluzia, Madril, Gaztela-Mantxa, Extremadura eta

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Levante. 2020ko ekitaldian, kooperatibaren asmoa da 60 bat frankizia inauguratzea.

EROSKIren frankizien supermerkatu sarean, %30 inguru igo dira salmentak urteko lehen sei hiletan. Horrek esan nahi du %16 handitu dela aurten oraingoz merkatuaren gainetik, Nielsen datuen neurketaz eta analisisaz arduratzen den konpainiaren txostenak dakarrenez. *"Merkatutik bestelako frankizia eredu bat eskaintzen dugu; izan ere, geure izaera kooperatiboak (geure bazkide langileekin) ekintzaileen premietatik hurbil kokatzen gaitu. Eredu komertzial erakargarri bati esker lortu dugu haztea; izan ere, COVID-19ak eragin duen osasun krisian sektoreko batez bestekoak baino hobeto bete ditugu kontsumitzaileen beharrak"*, nabarmendu du EROSKIren Frankizia arloko zuzendariak, Enrique Martinezek.

Lankidetza hitzarmenak

Kooperatibak eusten die Enpresaburu Gazteen Elkarteen Espainiako Konfederazioarekin (CEAJE) dituen lankidetza hitzarmenei, enpresari gazteen ekintzailetza lagundu eta sustatzeko, eta akordio bat du ATArekin, hau da, Enpresarien eta Langile Autonomoen Elkarteen Espainiako Federazioarekin. Hitzarmen horiekin, ekintzailea indartzeko konpromisoa hartu ez ezik, EROSKI autonomia erkidegoetako ekonomia garatzen lagundu nahi du.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)